


Haur Hezkuntza

Egonkortasuna
arretaren eta
harremanen
kalitatearen ardatz



LANBIDE
EKIMENA



Proiektuaren bultzatzaileak

LANeki



Laguntzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Hizkuntza-koordinazioa



Egilea: JUDIT FALK: *Revista Infancia* núm. 80, julio-agosto de 2003 (FALK 2003)

Zuzenketak: Elhuyar Hizkuntza eta Teknologia

Maketa: Elhuyar

Azalaren diseinua: Naiara Beasain

2012an itzulia eta prestatua



0-6 URTE BITARTEKO HAURREN HEZIKETA

EGONKORTASUNA ARRETAREN ETA HARREMANEN KALITATEAREN ARDATZ

JUDIT FALK

Haur bat ezin denean bere familiarekin hazi, haren ardura abegiko familia batek har dezan nahiago izaten dute profesional gehienek, haien iritziz taldeko abegi-zentroek baino hobeto erantzuten baitiete abegiko familiek haurren premiei, batez ere haurrak txikiak direnean. Irtenbide horren abantailak zalantzagabeak dira, baina zailtasunak ere ez dira makalak. Haurra abegiko familian barneratzeko egitura egokia prestatu ezean eta «guraso – seme-alaba – familia hirukoari» prestakuntza eta laguntza eman eta segimendu egokia egin ezean, familia-abegiak haurraren asaldurak areagotu ditzake, eta porrotak eta hausturak eragin behin eta berriz. Kontrako iritziak oso hedatuta badaude ere, nire ustez, haurra aldi batez gurasoengandik bereiztea ondo antolatutako erakunde batean, zalantzarik gabe onuragarria gerta dakieke bai haurrari bai gurasoei.

Haurrak ordurako iragan mingarria du, baldin eta jaioberritan amaetxea utzi eta zuzenean sartu bada abegi-zentroan, edo aldi batez pediatria-arloan egon ondoren sartu bada abegi-zentroan; iragan mingarria izango du, halaber, familia-giroan jasandako eskasiak edo tratu txarrak direla-eta sartu bada zentroan, orduan bere ohiko ingurunea ere galdua baitu bortizki. Gainera, kolokan sumatzen du etorkizuna.

Kasu horietan guztietan segurtasuna eta ongizatea aurkitzen lagunduko dion giroa behar du haurrak; ez soilik giro abegitsu eta gozoa; inguru egonkorra ere behar du, erreferentziak topatu ahal izateko, horrek lagundu egingo baitio bere burua egonkortzen, kokatzen, konfiantza hartzen edo berreskuratzen eta bere burua hedatzen eta egituratzen. Erronka bitarikoa da, beraz: haurrari bereizketa gainditzeko laguntzea, batetik, eta, horrekin batera, bizimodu emankorra ziurtatzea. Haurra dena delako erakundearen aldi batez soilik badago ere, beste irtenbide bat iritsi artean haurrari bizileku bat ematea baino areago doa erakundearen eginkizuna; erakundeak egokiro jardun behar du, abegiak, terapeutikoa den heinean, zentzua izan dezan bai haurrarentzat bai haren gurasoentzat.

Nola lortu, baina, hori guztia?

Emmi Pikler-ek, orain berrogeita hamar urte Lóczy institutua sortu zuenean, asmo zehatz bat ezarri zuen helburu: edozein arrazorengatik familiarekin ezin hazi eta gau eta egun erakunde baten babespean geratutako haurren bizimoduan eskasiak eragiten zituzten faktoreak guztiz desagerraraztea, hain zuzen ere, Emmi Piklerren ustez, haur bat ezin zenean amarekin hazi, amarekiko harreman hori berreraikitzea ezinezkoa bazen ere, posible zen haur horri guztiz bestelako esperientzia bat ematea, taldeko testuinguru batean erabat garatu zedin; eta uste osoa zuen horretan. Hala, bete-betean eta berariaz eten zuen Piklerrek haur txikiei abegi emateko zentroetan jarraitu ohi zuten jardunbidea; eta alde batera utzi zituen ordena inpersonala, higiene-arau eta osasun-legedia zorrotzak, kutsatzeko, gaixotzeko eta istripuren bat izateko beldurra eta arreta-aldi azkar eta «funtzionalak», guztiak ere haurren bizimoduaren eta langileen diziplinaren oinarri.

«Txiki-txikitatik familiarengandik bereizitako haurren bizitzan, egonkortasun-falta da arantzarik mingarriena».

Horren ordez, familia-egitura imitatzen saiatu gabe betiere, ume horietaz bestela arduratzeko modu bat eratu zuen Emmi Piklerrek, haurraren beraren ekimenetik sortutako ekintza askearen balioaren gainean egindako behaketak eta aurkikuntzak oinarritzat hartuta, pediatria-lanetan familiak artatzean lortutako informazioaren bidez. Horrekin batera, helduen eta haurren arteko harreman berezi bat lantzen jardun zuen, haren bidez haurrak etorkizuneko harremanak errotzeko harreman-jarduerak garatu zitzen.

Jaiotzetik etengabe garatzen ari diren pertsonatzat hartzen zituen haurrak, eta bizitzan unez une beren burua eraikitzen ari direla jotzen zuen; ohartzen zen, beraz, haurren premiak aldatu egiten direla, haurrak garatu ahala. Kalitateko arreta eman ahal izateko, ezinbestekotzat zuen haurren oinarritzko beharrianak asetzen zirela bermatzea; ezinbestekotzat jotzen zuen, halaber, haurrek segurtasun- eta konfiantza-sentimendua hautematea, eguneroko bizimoduko arloetan bizipen positiboak lotuta. Alabaina, zein dira erakundeak ase beharreko haurraren oinarritzko premiak?

- *Segurtasun afektiboa* eraikitzea: batetik, harreman egonkor, jarraitu, estu eta goxoak ezartzea eta mantentzea, haurraren eta hark ondo ezagutzen dituen helduen kopuru mugatu baten artean, eta, bestetik, lehenespenezko benetako harreman afektibo, zehatz eta profesional bat eratzea, pertsona bakar batekin (forma eta eduki bereziekin erakundearen testuinguruan).
- Haurrak bere ekimenez eta naturaltasun osoz egindako *ekintza askeak begirunez hartzea eta zeharka ekintza horiek bultzatzea*, betiere *norberaren garapen-erritmoa errespetatuz*.
- Etengabeko xedea da hori, haurrek, beren burua «ontzat» jota, *beren buruaz jabetu daitezen*, nor bere garapen mailan, alegia, gai izan daitezen beren testuinguru sozial eta materialean, lekuan eta denboran kokatzeko, berengan eraginen bat duten gertaerak eta harremanak hautemateko, eta beren historia pertsonala eta familiarra ezagutzeko, orainean, iraganean eta etorkizun hurbilean zein urrutikoan.

- *Osasun fisikoari eta gorputz-ongizateari* dagokienez, haurra egoera onean egon dadin lortzea eta egoera hori mantentzea, arestian aipatutako premiak aseko baititu egoera horrek, eta, aldi berean, egoera on horren ondorioz sortuko baitira.

Premia horiek garrantzi berekoak dira, eta elkarri uztartuta daude, ezin bereizita; elkar errespetatu behar dute aldi berean. Izan ere, haietariko bati kontu egiten ez bazaio, besteak ere ezin dira garatu.

Premia horiek asetzeko etengabeko asmo horrek egituratzen du hezkuntza-proiektua eta jardunbide pedagogiko osoa, haurrak lagunduta dagoela sentitzea baita helburua eta ohartzea babesa duela eta subjektu parte-hartzailea eta laguntzailea dela (eta ez objektu manipulatu edo zuzendua); era berean, erakunde osoaren antolamendua haurren premien arabera eraikitze bide ematen du asmo horrek.

Txiki-txikitatik familiarengandik bereizitako haurren bizitzan, egonkortasun-falta eta jarraitutasun-sentimendurik eza da arantzarik mingarriena eta egokiro garatzeko oztopo nagusietako bat. Familian bizi diren haurrek, nolabait esan, berez dute segurtatuta funtseko jarraitutasuna, baita familia-girotik kanpo beste abegi-leku batzuk badituzte ere eta beste leku horietako hezkuntza-giroa familiako girotik erabat aldentuta egon arren (ama-laguntza, 0-3 eskola, 0-6 eskola eta abar). Izan ere, familiak berak edo familiako kide izateak bermatzen du jarraitutasuna. Ingurune pertsonal eta materialaren iraunkortasun erlatiboak eta eguneroko gertaeren kateak osatzen dute haurren bizitza naturalaren testuingurua.

Aldaketak direla —garrantzi handiagokoak edo txikiagokoak izan— edo ustekabeko gertaerak direla iraunkortasun hori tarteka eten arren, haurren unibertsoaren oinarria konstantea da, eta, testuinguru horren barruan, elkarrekiko hartu-emanak lotzen ditu haurrak bere inguruneko pertsona garrantzitsuenekin, bereziki amarekin, hark betetzen baitu paperik garrantzitsuenak. Jarraitutasun horrek edo egonkortasun horrek segurtasun afektiboa sentitzeko aukera ematen dio haurrari, eta segurtasun horrek kanpoko munduko atea irekitzen dizkio. Egonkortasunak eta jarraitutasunak baldintzatzen ditu haurrak mundua ezagutzeko duen grina eta gaitasuna, objektuekiko eta pertsonakiko harremanak, ideiak eta nozioak garatzeko ahalmena, oroitzapen zuzenak izateko gaitasuna eta bere adinari dagozkion ezagutzak lortzeko gaitasuna. Era berean, egonkortasun eta jarraitutasun horren arabera egituratu ahal izango du haurrak bere buruaren eta munduan duen lekuaren gaineko irudi zuzena. Nor bere buruaz jabetzeko prozesuan, funtsezko eragilea da bakoitzak existentziaren jarraitutasunaz duen sentimendua («ni neu naiz; bizi izan dudana guztia naiz, neuri gertatu baitzait hau, hori eta bestea, nirekin bizi baitira honelako eta halako... nitaz esaten baitute hau, hori eta bestea... Haurra nintzaneko kontuak edo nagusi izango naizenekoak... Hori guztia naiz ni»), eta funtsezko eragilea da ingurukoek norberaz duten irudia, ingurukoek bakoitzari ematen dioten rola.



Ingurune aldakorretan hazitako haurren bizitzan —hainbat hezitzaileekin eta egoera aldakorretan hazitako haurrengan—, jarraitutasun-falta horrek traba egiten die haien garapen afektibo, kognitibo eta sozialari. Haurra ingurune batetik bestera igarotzen den aldiro, dena aldatzen da haren biran: objektuak, pertsonak, bizimodua, ohiturak... Batzuetan, janaria ere desberdina izaten da, baita leku batean eta bestean haurrari buruzko egiten diren aurreikuspenak eta ezartzen zaizkion eskakizunak. Ingurunea aldatuaz batera, aldatu egiten da ingurune horretan haurraren gainean duten ikuspegia. Ingurune berriko helduek eta adiskideek bestela ikusten dute haurra; hura, baina, aurreko egoerara zegoen ohituta. Birrintu egin zaio iragana. Gainera, inguruan dituen horiek nekez lagundu diezaioke behar duen jarraitutasun horri eusten, askotan ez baitakite ezer askorik bere iraganari buruz: ez dakite nola bizi zen lehen, zer sentitzen zuen, zer ohitura zituen, zer gustu, zer sentimendu eta emozio; ez dakite zerk eragiten zion poza eta zerk tristura. Ondo hausnartutako jarraitutasuna ematen ez bazaio eta haren eguneroko bizimodua kontu handiz antolatzen ez bada, erreferentzia-puntu guztiak galtzen ditu haurrak; ezin du bere buruaz jabetu, eta ezin du bere burua dagokion ingurune sozial eta materialean kokatu; eta, hartara, ezin ditu bete-betean aprobeztatu ez zuzeneko arreta-uneak —banakako harremanak estutzeko une pribilegiatuak izan beharko zuketena— ezta ekintza askeko aukerak ere.

«Segurtasun-sentimendua errotzeko, haurren bizitzari jarraipena ematen zaiola bermatzeko moduan egituratu behar da haien testuinguru orokorra».

Segurtasun-sentimendua errotzeko, haurren bizitzari jarraipena ematen zaiola bermatzeko moduan egituratu behar da abegi-toki guztietako testuinguru orokorra, kontuan hartuta jarraitutasun-beharrak haurraren bizitzaren alderdi guztiak barne hartzen dituela: ingurune materiala (zer lokal erabiltzen diren eta lokal horiek nola atontzen diren, haurra gune ezagunetan egon dadin bai arreta ematen zaionean bai jolas egiten duenean, eta ohiko tokian topa ditzan beti objektu ezagunak —bere objektuak ere bai—) ingurune soziala (heldu eta haur ezagunekin bizitzea), eta gertakarien katea, bat-bateko jardunak saihesteko edo, gutxienik ere, halako jardunak ahal beste murrizteko.

Haurrak bizitzaren lehenengo hilabeteetan eta urteetan egiten dituen jabetze garrantzitsuak egituratzen ari den nortasun horretan barneratu ahal izan ditzan, ezinbestekoa da inpresio guztiak jasotzea eta esperientzia guztiak garatzea, pertsonen arteko lotura-sistema egonkor baten barruan. Harreman-sistema hori nahitaezkoa da, haurrak segurtasun afektiboa garatu eta, hartara, jaso beharreko frustrazioak jasateko gaitasuna izateko, frustrazioak ezinbestekoak baitira haren nortasuna heltzeko.

Harreman-sistema hori beharrezkoa da, halaber, haurrak gizartearen balio-sistema, zuhurtasun-arauak, jokaera-arauak eta debeku-sistema bereganatzeko, imitazioaren, asimilazioaren eta identifikazioaren bidez. Familiarengandik bereizitako haurren hezkuntzan, afektu-gabeziari aurre egiteko, funtsezkoa da, besteak beste, haurren ingurua osatzen duten pertsonak behin eta berriz ez aldatzen ahalegintzea, hartara azaleko harremanak eta arreta despertsonalizatzaileak desagerrarazteko, horiek baitira segurtasun afektibo ezaren sustatzaile nagusiak. Ez bada etengabeko ahalegin hori egiten, haurra besoz besoz igaroko da lehen hilabete eta urteetan, eta ezin izango du bereizi ere egin zein dituen ezagun eta zein ez.

«Behaketak enpatiazko gertutasuna sorrarazten du, eta baliagarria izaten da haurraren eta hezitzailearen artean harreman goxoa eraikitzeko».

Hezitzaileak dela delako arrazoiarengatik (lan-ordutegi zehatzik ez duelako eta ordutegiak unean-unean antolatzen direlako, talde txikiak behin eta berriz berrantolatzen direlako edo beste edozein arrazoi dela tarteko), txandaka lan egiten badu haur taldeekin, ezin ditu behar bezala ezagutu bere ardurapean dituen haurrak. Oztopo horretaz jabetuta badago eta trebea bada, baliteke inoiz haur baten begirada edo beste baten irribarrea erakarri ahal izatea; baliteke, haur batzuekin elkarreragin laburrak lortzea, edota talde-giro lasaia ezartzea; alabaina, baliteke, halaber, konturatu ere ez konturatzea ezin izan duela haurrekiko benetako harreman pertsonalik lortu. Ez ditu haurren ohiturak ezagutzen, ezta haurrek harenak ere. Ez da haurren seinaleak hautemateko gauza: ez die haurren keinuei eta negarrei erantzuten, ezta haurrek zezelka esaten dituzten hitz bakunei ere; bestela esan, ez daki haur bakoitzaren premietara egokitzen.

Banan bana elkarri egokitzea bilatu beharrean, berdin-antzera zaintzen eta artatzen ditu haur guztiak, eta hitz estereotipatu berak erabiltzen ditu maiz. Pertsonatzat baino areago, objektutzat hartzen ditu. Ondorioz, haurren adierazpenak ere gero eta eskasagoak eta urriagoak dira; haien arduradunaren lan-errutina mekaniko huts bilakatu da, eta inpersonaltasunez dihardu, axolagabe maiz.

Testuinguru horretan, haurrez arduratzea lan neketsu eta gogaikarria bilakatzen da berehala, baita lanbide hori «haurrak izugarri maite dituelako» hautatu duen horrentzat ere. Sorgin-gurpila da: egoera horretan haurrak galdu egiten ditu berezko dituen ezaugarriak, eta ez dio hartaz arduratzen den pertsonari adorerik ematen, harekin banakako lana egin dezan.

Erakundeetan hezitako haurren segurtasun afektiboa bermatzeko baldintza nagusietako bat, beraz, haurraren eta helduaren arteko harremanak jarraituak eta kalitatekoak ezartzea da. Haurrak psikikoki isolatua geratzeko arriskua du, ez badu bere ardura berehala hartuko duen helduen talde mugatu bat, zeinak, G. Appellen hitz ederretan, «haurra besoetan eramateaz gain buruan ere eramango baitu». Erakundeetan egiten duten egonaldi osoan, hartan sartzen direnetik behin-betiko ateratzen diren arte, helduen talde murrizt batek soilik —lauko talde bat gehienez ere— hartzen badu etenik gabe haur talde txikiaren ardura, haurrek eta helduek ongi ezagutu ahal izango dute elkar, eta, hartara, harreman afektibo oparo eta jarraitua eraiki. Hezitzaileak haur berberen ardura badu beti —sei-zortzi haur gehienez ere— haurrek eta hezitzaileak ondo ezagutuko dute elkar, eta bata bestea ulertzeko gai izango da; hala, hezitzailea berariaz arduratu ahal izango da haur bakoitzaz, behar dituen ñabardurak ezarriz, eta banan bana erantzun ahal izango die haurrek igorritako seinaleei eta erreakzioei.

Hori lortzeko, baina, ezinbestekoa da hautxoak edo haurrak jasotzen duen arreta harreman egonkor baten barruan garatzea, benetako hartu-emanean oinarrituta, bera nork zaintzen duen ohartu dadin haurra, eta, horrekin batera, bere buruaz ere jabetu dadin, hots, bere nortasunaz eta osotasunaz. Harremana estuagoa izan daiteke, hezitzaile bakoitza haur talde osoaren zati batez arduratzeko aukera ematen badu sistemak. Hala, haur bakoitzak lotura sendoago izango du erreferentziako edo lehenetsuneko hezitzailearekin, zeinak, taldeko bizpahiru haurren ardura izanik, benetako harreman

egonkor, jarraitu eta goxoa eraiki ahal izango baitu haiekin erakundearen barruan. Heldu batekiko harreman pribilegiatu hori nahitaezko baldintza da lehen haurtzaroan segurtasun afektiboa eta hastapeneko gizarteratzea lortzeko.

Haurraz arduratzen den pertsonaren eta haurraren arteko harreman berezi horren barruan, haurrari arreta berezia ematen eta harekiko harremanean sakontzen jarraitu behar du hezitzaile horrek; dena dela, gogoan izan behar du beti ez dela bere semea edo alaba hezten ari. Ez du ahaztu behar haurraren bizitzan funtsezko betekizuna duen arren, betekizun hori behin-behinekoa baino ez dela: ez dute ez iragan eta etorkizun bateraturik. Haurrak bere familia-historia du; gurasoak ditu, fisikoki han ez badaude ere eta bisitan ez badoaz ere, eta haiengana itzuliko da noizbait, edo adoptatu egingo dute, edo abegi-familia batean egingo du aurrera. Hezitzaileak lagundu egin behar dio haurrari haren iragana, oraina eta etorkizuna barne hartzen dituen izate-sentimenduari jarraitutasuna ematen; horixe da, hain zuzen, hezitzailearen eginkizun zailenatariko bat. Bestalde, gurasoekiko edo etorkizuneko adopzio-gurasoekiko norgehiagoka, lehia eta, batzuetan, areriotasuna sentimendu suntsikorrak dira, eta ondorio kaltegarriak dituzte guraso – haur – hezitzaile hirukoko partaide guztientzat. Hezitzaileak bere lanbidearen mugetan geratzen jakin behar du, eta sentimenduak kontrolpean eduki behar ditu beti, haurrak ez daitezen bere emozio kontrolaezin eta begirunerik gabekoen xede bilaka. Hezitzaileek ez dituzte haurrak instintuzko amatasun-sentimenduekin hartu behar; haur bakoitzaren ongizatea hartu behar dute helburu, haren alderdi guztiak zainduta, eta haur bakoitzaren garapen osoa bermatu. Emozioen oldar hori egokiro bideratzeko, jardunbide eraginkorra izaten daugar hori haurren premiak asetzeko interes bilakaraktea. Arretaz erreparatu behar diete txikien adierazpenei, haur bakoitzaren ongizatea eta hedapena sustatzeko baldintzak topatu ahal izateko, horrek, aldi berean, interesa, gozamina eta sakon-sakoneko gogobetetasun profesionala ernaraziko baitu hezitzailearengan eta, hartara, ezagutza, pertzepzio-gaitasunak eta haurretara egokitzeko gaitasuna garatzeko grina sortaraziko baitio.



“Arreta emateko uneetan hezitzaileak amultsu eta zoli hartzen badu haurra, «esku hartzeko» aukera emango dio”.

Hezitzaileek jarduteaz batera behatu ere egiten badute, haurrari eragiten dionari buruz lortutako informazioa parteka dezakete elkarrekin gero. Gertukoa izanik ere arreta-prozesuan zuzenean parte hartzen ez duen hirugarren pertsona batek (psikologoa, psikopedagogoa, laguntzailea) laguntza emango dio talde mugatu horri, aldian-aldian oharrak eginez, urrutiagoko behatzailearen ikuspegitik, eta banakako bileretan eta elkarrizketetan oinarrituta egindako oharpenen berri emanez. Idatzizko oharrak ere lagungarriak izaten dira, haurraren arduradunak emozioei dagokienez zehaztutako esparruaren barruan jardun dezan beti, muturretara joan gabe, alegia, haurraren gehiegi gerturatu gabe baina era berean modu arriskutsuan urrutiratu gabe.

Behaketak enpatiazko gertutasuna sorrarazten du, eta baliagarria izaten da haurraren eta hezitzailearen artean harreman goxoa eraikitzeko. Gogoetak eta deskribapenak bultzaturik, haurraren arduradunak saihestetik aztertu behar izaten du haurraren zer jarrera duen, horrek ez baitio gehiegikeriaz jarduten utziko.

Lau hezitzaileen artean haurraren eguneroko bizimoduko xehetasunei buruzko komunikazio estua lortuz gero —ahoz zein idatziz—, haurraren inguruan dauden helduek jarraitutasunez eta koherentziaz jardun ahal izango dute. Aldiz, halako komunikazio esturik ez badago, haurrak ezin du ez ulertu ez aurreikusi zer gertaera jazoko zaizkion eta zer eragin izango duten; ezin du prozesu horretan parte hartu. Komunikazioa badago, ostera, bere ingurunean koka daiteke, eta giro ulerkor eta ulergarri batek babesten duela sentitu. Ingurune horretan, gauza bakoitzak benetako zergati eta ondorioak ditu. Gertakizunak ez dira zoriaren ondorio; ez datoz ustekabeen. Hori guztia lagungarri zaio haurrari, bere egoera eta historia amultsuki onartzeko.

Taldeko kideen arteko komunikazioak eragina du bai proiektu pedagogiko orokorrean bai eguneroko bizimoduko xehetasun txikietan. Ezinbestekoa da guztiz lana zorrotz koordinatzea; taldearen arduradunak du koordinazio horren erantzukizuna, talde mediko-psikopedagogikoaren laguntzaz eta erakunde osoaren babespean; erakundeak, bada, koherentziaz eta modu bateratuan jardun behar du lanean, haurrei dagozkien arlo guztietan.

«Haurra, laguntzaile aktibo den aldetik, segurtasun sakoneko unea bizi izan badu arreta jasotzeko unean, ekintza askearen aukerez balia daiteke gero».

Xehetasun txiki horiei esker du haurrak bere inguru fisikoa eta giza ingurua fidagarria direlako bermea; xehetasun horiei esker sentitzen du bere ingurunetik segurtasunez mugitu daitekeela eta bere beharrianak kontuan hartuko dituztela. Segurki daki nola emango dioten arreta: aldez aurretik daki nork, noiz eta nola emango dion jaten; nork, noiz eta nola bainatuko duen; nork, noiz eta nola jantzi eta oheratuko duen; nork, noiz eta nola egingo dien bere deiei kontu, eta abar. Horri esker, ez da bazterrera utzirik sentitzen, ezta zuzendua edo manipulatu ere helduen ikuspegitik unean-unean egokia zer den.

Haurren taldean, helduen eta haurren arteko harremana une jakin batzuetan harilkatzen da nagusiki: jatorduetan, bainuan eta gorputzari arreta emateko bestelako une batzuetan; izan ere, egoera

goxoak izaten dira horiek, kontakturako eta banakako elkarrekintzarako une ezin hobeak. Haur bakoitzari arreta emateko uneetan, helduak nahikoa asti eduki behar du beti haurraren premiei kontu egiteko, eta haren seinaleak eta adierazpideak hautemateko, horiei egokiro erantzute aldera (indarra eta zentzua emanaz). Banako arreta emateko uneetan, keinu bidezko eta ahozko elkarriketarako aukera egoten da; hala, arduradunak keinu goxo eta leunak egin behar ditu, eta keinu horiek une horretako bizipenei buruzko hitzekin osatu, haurrari ardura eta interesa erakutsiz.

Arreta emateko uneetan hezitzaileak amultsu eta zoli hartzen badu haurra txiki-txikitatik, hasieratik azaltzen badio zer egiten ari zaion eta zer gertatzen ari zaion eta haurrak bere nahiak eta premiak azaltzeko erabiltzen dituen zeinuak eta adierazpenak ulertzen saiatzen bada beti, orduan, arreta-prozesu horretan eta haren premiak asetzeko eran «esku hartzeko» aukera emango dio haurrari, haren adina zeinahi dela ere. Haurraren ardura duen hezitzaileak haurra parte hartzera bultzatuz gero, ahoz azalduz gero —baita jaioberriei ere— zer ari den egiten, haurraren erreakzioak behatuz gero eta erreakzio horiek hitzez adieraztea eta haurraren ekintzak eta egiteak onetsiz gero, horrek guztiak lagundu egingo dio haurrari bere burua hobeto ezagutzen eta adierazten, bestela esanda, bere gizatasuna finkatzen. Haurtxoa horrela tratatuz gero, interesa erakutsiko du; ekimenez parte hartuko du arreta-uneetan, eta estimua eta gozamina adieraziko die zaintzaileei. Haurra garatu ahala, gero eta sakonagoa izango da elkarren ezagutza, eta gero eta estuagoa harremana.

Hori da modu bakarra arreta-uneen bidez haurrak eta helduak elkarren keinuak ikasteko eta bien artean benetako koordinazioa eta elkarriketa sortzeko. Elkarriketa horren bidez, seinaleak igortzeko bitartekoak jasotzen ditu haurrak, eta seinale horiek erabiliko ditu beregan eragina daukaten gertaeretan esku hartzeko. Aldi berean, hezitzaileak, trukean, beste bitarteko batzuk jasotzen ditu, batetik, haurrari hark ulertzeko moduan emateko bere asmoen berri, eta, bestetik, bere jarduna haurrak adierazitako premietara egokitzeko eta haurrak proposatzen zaion horretan gogotsu parte har dezan lortzeko.

Elkarrekin partekatutako jarduera horren barruan garatutako komunikazioari esker, haurrak alde zurratik daki oro har zer gertakari datozen gero, eta hori lagungarri zaio bai ematen dizkioten zainketak pasiboki ez onartzeko, bai, areago, zainketa horietan aktiboki parte hartzeko eta, gozamenak berak bultzaturik, gorputzeko beharrianak asetzeko, aurrera egin dezan alderdi guztietan autonomo bilakatzeko prozesuan.

Haurtxoak gertaeretan eragiteko gaitasuna duelako ustea badu, prozesu horretan parte har dezakeela senti badezake, eraginkortasun-sentimendua indartuko du. Kalitate oneko arreta emanaz gero, seguru sentituko da eta bere bizimoduak jarraitutasuna duela hautemango du; bere autonomia garatzen laguntzeko esperientziak metatuko ditu, eta benetako harreman afektiboak ezartzera eta bere NIIa gartzera iritsiko da.

Haurtxoa, laguntzaile aktibo den aldetik, segurtasun sakoneko unea bizi izan badu arreta jasotzeko unean, ekintza askearen aukerez balia daiteke gero; ekintza horietan helduak ez du zuzenean parte hartzen, ez jostarazteko ez laguntzeko, eta ez dio zuenezko estimulaziorik ezartzen; izan ere, ekintza egiteko eta haurraren autonomia garatzeko lagungarri izan ordez, haurra pasibo eta menpeko bilakatuko luke helduaren jokabide horrek. Ekintza horietan, bada, helduak zeharka estimulatu ditu haurrak, eta

arloan emozional, afektibo, psikomotor eta kognitiboak modu orekatuan garatzeko baldintzak sorrarazten ditu:

- *Inguruaren oparotasuna* baliaturik. Askotariko materialak jartzen dizkie eskura, kontuan harturik haur bakoitzaren gustuak, batetik, eta, bestetik, haren eboluzio mailari dagozkion esperimenduzko aukerak.
- *Haur bakoitzaren erritmoa errespetatuz*, garapen motorrei dagokionez. Hala, ez dio haurrari sekula bere kabuz menperatzeko gai ez den jarrera bat harraraziko, eta ez du bultzatuko egiteko gai den ekintza baino ekintza aurreratuago bat hartzera.
- *Hizkuntza joria erabiliz*, kainuak eta hitzak trukatzeko, haurrak, nork bere garapenaren barruan, beren buruaz eta inguruaz jabetu daitezela, eta beren burua behar bezala koka dezaten eragiten dieten gertakizunetan eta harremanetan.



Haurren ardura duen pertsonak beharrik gabe esku hartuko balu haren ekintzetan, ez lioke utziko dastatzen ekintzak nork bere kasa egiteak eragiten duen gozatua; gainera, mendekotasun-sentimendua eragingo lioke haurrari, eta mendekotasun horri nekez uko egingo lioke gero. Helduak sustatutako jolasaren une batzuek haurrek bete ezin ditzaketan aurreikuspenak sortzen dituzte, eta adore falta eta frustrazioa baino ez diete eragiten.

Hezitzaileak haur bakoitzari behar beste denbora eskaini diezaion eta unean-unean haur bakoitzari presarik gabe arreta eman eta interes guztia harengan jar dezan, uste osoa izan behar du gainerako haurrak une horretan modu autonomoan jolasteko gai direla, frustraziorik edota bakardade-sentimendurik izan gabe. Hala, gainerako haurrek ekintza aske eta autonomoan jarduteko erabil dezakete abagune hori, une horretan begiramen berezia jasotzen ari den haurrak arreta-une goxoaz gozatzen duen bitartean.

Izan ere, haurrak ezinbestekoak ditu hezitzailearekin igarotzen dituzten uneak, baina baita ekintza aske eta autonomokoak ere. Hezitzaileak ez balu hori ulertuko, garrantzi gutxiagoko jardueratzat joko luke haurren ekintza autonomoa, hezitzailearekiko hartu-emanaren ordezkotzat jardueratzat hartuko bailuke, «ezer hoberik ezean». Orduan, erruduntasun-sentimendua helaraziko lioke haurrari nahi gabe, eta aditzera emango lioke ezin izan dituela haren premiak bete, beste batzuen eskariei erantzun behar zielako. Erruduntasun-sentimendu horrek, bada, anbiguo bilakatuko luke harremana. Egoera horretan, ekintza autonomoak gozamina eragin beharrean, egonezina eragingo lioke haurrari, eta bakardade-sentimendu edo frustrazio horrek antsietatea eta larritasuna ekarriko lizkioke. Aitzitik, ekintza autonomoaren balioa ulertu eta zeharo onetsiz gero, oso bestelakoa izango da hezitzailearen


jardunbidea, ekintza horretako baldintzak ezartzeaz arduratuko baita; eta haren xedea ere oso bestelakoa izango da, egoera afektiboa egokia lortzen saiatuko baita, hurrek beren ingurunean parte har dezaten, nork bere interesak, heldutasun funtzionala, saiakuntzen aberastasuna eta aurreko esperientziak oinarri hartuta.

Haurtxoari helduarekiko harremanetan zenbateko eskumena duen aitortuz gero eta ekintza aske eta autonomoei ekiteko zer-nolako eraginkortasuna duen balioetsiz gero, errotik aldatuko da helduak hartxoaren gainean duen ikuspegia; aldatu egingo da guraso edo zaintzaileak duen betekizunari buruzko ikuspegia, eta nabarmen sakonduko da bien arteko harremana, helduak begirunez jokatu baitu eta begirunea baita, hain zuzen, harremanen ardatz nagusietako bat. Haurra, jaiotzen den unetik, kolaboratzaile aktiboa da eta pertsona argia: gauzak ulertzeko gai da jada edo gai izango da, horretarako aukera ematen badiote, hizkera normalarekin hitz egiten bazaio eta eragiten dion guztiaren berri ematen bazaio beti.

Haurrak gaitasuna, ekimena eta ekintzarako gogoia adierazten du, baldin eta aurretiaz egokiro antolatutako ingurunea ematen bazaio, hartara bere saiakuntza enpirikoez goza baitezake, bere burua eta inguruan duen mundua ezagutzeko esperientziak metatu eta bere gorputzaren gaitasunak eta objektuen propietateak aurkitu; dena den, hezitzaileak arretaz jardun behar du beti, haurra ez estimulatzeko haren garapen-mailak markatutakoa baino erritmo biziagoan. Hautatzeko eta erabakiak hartzeko aukera emanez gero, bere nortasuna, osotasuna eta autoestimua garatzeko eta berresteko bide emango zaio haurrari. Erakundearen testuinguru guztiak emango dio aditzera zer garrantzitsu, estimatu eta maitagarria den.

Haurrak erakunde bizi duen guztia, erakundera sartzen den unetik hartan ematen duen denbora guztia, lagungarri gertatu behar zaio handik irten eta beste ingurune batean barneratzeko momentuari aurre egiteko (familia biologikoan, adopziozko familian edo abegikoan). Ingurune horretan arrakastaz barneratzeko aukera gehiago izango du, baldin eta familiak jasotzen duen haur hori orekatua eta osoa bada, bere buruarekiko eta munduarekiko irudi ona badu, helduekiko uste osoa badu eta pertsonen arteko afektuaren esperientzia ikasi eta bizi izan badu.

«Haurra, hasieratik, kolaboratzaile aktiboa da eta pertsona argia; gauzak ulertzeko gai da jada edo gai izango da».



LANBIDE
EKIMENA